



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. ESKATZEKO BALDINTZAK

Dirulaguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte onuradun izateko:

- a) Ibarra erroldatuta egotea, gutxienez, ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenagotik.
- b) Egoitza soziala Ibarra duen enpresa edo entitate batean lanean aritzea gutxienez ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenagotik
- c) Ikastaroa edo ikasturtea amaitu artean Ibarra erroldatuta edo lanean jarraitzea.
- d) 2020ko urritik 2021eko ekainaren 30era bitartean euskaltegi edo barnetegiren batean euskara ikastaro batean parte hartzea.
- e) Matrikula ordaindu izana.
- f) Ikastaroa bukatzea eta gutxienezko aprobetxamendua izatea. Hau ikastaroa jaso den Euskaltegiak edo barnetegiak egindako ziurtagiri bidez justifikatuko da. Aitzoleko ikasleen kasuan, txosten hau euskaltegiak berak igorriko dio Udalari.
- g) Gutxienez, %85eko asistentzia izatea.
- h) Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- i) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea

2. EKARRI BEHARREKO AGIRIAK:

2.1. Interesatu guztiek:

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta.
- b) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- c) Matrikularen kopia.
- d) Euskategiaren txostena (Aitzol euskaltegiak ez dute ekarri beharko)
- e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko aitortpena.
- f) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

2.2. Ibarra lan egin baina beste udalerrri batean erroldatuta daudenek:

- 1.- 2.1 puntuan zehaztutakoak
2. Lan egiten duen Ibarra enpresa edo entitatearen agiria
- 3.- Gizarte Segurantzak egindako lan bizitza, gutxieneko denbora lanean egon izana ziurtatzeko.
- 4.- Erroldatuta dagoeneko Udalaren agiria non esaten den ez duela helburu bererako dirulaguntzarik jasotzen.